


Amara Zaharra

Xabi Ubedaren lanak A/Tn

Hilaren 13an, ostirala, Xabi Ubeda Tolosako argazkilariren "Pasaporte baterako argazkiak" izenburupeko erakusketa zabalduko da A/Z argazki aretoan.

Xabi Ubedaren erakusketa datorren hilabetera arte egongo da ikusgai. Ubedak fotomatoietan ateratako argazkiekin esperimentatu ohi du. "Ispilua jarri ohi dut fotomatoian, eta ondorioz, kanpoko espazioa erretratzen dut", diosku Ubedak. 93an Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso zuen proiektua abian jartzeko. Madriren eta Euskal Herrian lanean



aritu ondoren, hainbat serie osatu ditu, "Pasaporte baterako argazkiak" izeneko erakusketan ikusi ahal izango direnak. "Hasieran lana esperimentalagoa zen. Egun gauzak gehiago planifikatzen ditut.

Ispiluaren bidez, fotomatoien begirada zabaltzen dut", jakinarazi digu Ubedak. Bixia, benetan, tolosar argazkilariren lan egiteko era, eta bitxiak bere argazkiak. Etzazula erakusketa gal!

Bizikleta ikastaroak Donosti Berrin

Donosti Berri elkarteko Bizikleta Eskolak udari begira mendi bizikleta ikastaroa antolatu du. Ikastaroa uztaile, abuztua eta irailean egingo da. Uztailean eta abuztuan ostegunetan bilduko dira (16.00) eta irailean larunbatetan (09.00) irteerak egingo dituzte.

Bidebieta

Hazia erein fruitua jasotzeko

Bidebietako eskola publikoak datorren urtean D ereduari ikasteko aukera emango du.

Duela bi aste amaitu zen ikasturtea, eta aurten ere, auzoan euskararen erabilera indartzeko hainbat ekimen egin dira.

Bidebietako eskola publikoak, orain arte DBH B eta A ereduari ikasteko aukera eskaini du. Hala ere, Bidebietan euskararen erabilera txikia dela eta, azken urteetan ikastetxeak auzoa euskalduntzeko zenbait ekimen abiarazi ditu. Esaterako, aurten antzerki tailerretan sortutako antzezlanetako batzuk euskaraz taularatu

Txintxerpe eta Bidebietako 20 bat haur ariko dira D ereduari

dira, "Auzoan ez dago euskaraz bizitzeko aukerarik. Beraz, haurrei euskaraz jarduteko aukera eman nahi diegu", esan digu Maite Rada bertan 18 urte lanean darmatzan irakasleak.

Aurten bertako ikasleek poz handia hartu dute, izan ere, 2001-2002 ikasturtean D ereduari eskainiko dute. "Trintxerpeko Marmengo Ama eskolarekin batera ari gara, eta D ereduko gela zabalduko dugu lehen mailan. Oso pozik gaude", dio Maitek. Trintxerpe



laz, besteak beste, graffiti tailerra antolatu zuten.

eta Bidebietako 20 bat haur izango dira bertan euskara hutsez ikasten hasiko diren lehen haurrak. Fruitua jaso nahi bada, hazia ereitea ezinbestekoa da...

GEROA
INMOBILIARIA

ZURE KONFIDANTZAZKOA

Zabaleta, 48 - behea
20002 Donostia
Tel./Fax: 943 29 27 87